ALKOHOLIMETRO KUALITATIBOAK, ALKOHOLAK GENEROAREN ETA PISUAREN ARABERA DITUEN ERAGINEI BURUZKO ERREGELETAK ETA "ALKOHOLAZ JAKIN" KOADRIPTIKOAK ESKURATZEA XEDE DUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren 2023-2027 VIII Adikzioen Planaren jarduera-ildoetako bat prebentzio-programak ezartzea da droga normalizatuenen kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko. Hori dela eta, Adikzioen Planak, zehazki, ezartzen du prebentzio-ekintzak egin behar direla alkoholaren kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko, bereziki jai- eta aisialdi-guneetan eta gazteak biltzen diren ekitaldietan. Horrelako esku-hartzeak diseinatuta daude edari alkoholdunen kontsumoarekin lotutako usteak desmitifikatzeko eta kontsumoari buruzko jarrera permisiboak zalantzan jartzeko. Eusko Jaurlaritzak, prebentzio-programa horiek bultzatze aldera, material batzuk prestatu eta editatzen ditu, herritarrak aholku labur baten bidez informatzeko eta sentsibilizatzeko, kontsumitzeak dakartzan ondorioei eta arriskuei buruz.

Gainera, Eusko Jaurlaritza erakundeen arteko ekintza eta sareko lana areagotzen ahalegintzen da, eta material horiek eragileen arteko koordinazioa indartzeko balio dute. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren eta toki-erakundeen (udalak, mankomunitateak eta aldundiak) arteko koordinazioa indartu egiten da, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako material horiek erabiltzen dituztenean toki-erakundeak, batez ere, gazteak eta adingabeek parte hartzen duten jai eremuetan, beti ere, horiek sentsibilizatzeko, bizitza-ohitura osasungarriagoak har ditzaten.

Alkoholaren ondorioak deskribatzen dituzten alkoholimetro kualitatiboak, erregeletak eta "Alkoholaz jakin" koadriptikoak prebentzio-progamen artean erabiltzen diren materialak dira, herritarrak alkoholaren kontsumoak eragindako kontraesanei buruz kontzientziatzeko. Hori dela eta, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak interes berezia du material horiek sustatzeko, hala eskatzen duten Adikzioen Tokiko Plana duten toki-erakundeen artean banatuz, gauzatzen dituzten sentsibilizazio-proiektu edo -kanpainen testuinguruan erabil ditzaten, batez ere jai- eta aisialdi-eremuetan eta gazteak biltzen diren ekitaldietan.

Baldintza teknikoen agiri honetan alkoholimetro kualitatiboak, erregeletak eta "Alkoholaz jakin" koadriptikoak bete beharreko baldintzak jasotzen dira. Erregeletak sexuaren, pisuaren eta jandakoaren baitan alkoholak duen eragina agertzen dute.

2. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

2.1-XEDEA

Kontratazio honen xedea **18.000 alkoholimetro zenbatetsi kualitatibo paketaturen, alkoholaren eragina adierazten duten 16.400 erregeleta zenbatetsi deskribatzaileren eta 12.000 "Alkoholaz jakin" koadriptikoen zenbatetsi horniketa da. Agiri honetan dierazitako unitateak zenbatetsiak dira,** hornidura gauzatzeko aurreikusitako beharretan oinarrituta.

2.2.- HORNIDURAK BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK

LEHENENGO LOTEA.

ALKOHOLIMETROA, ESTALKIA ETA BILGARRIA.

- Alkoholimetroaren ezaugarriak:
    - Substantzia eta nahaste kimikoak erregistratze, ebaluatze, baimentze eta murrizteari buruzko **EBren araudira egokitutako eredua**.
    - Alkoholimetro kualitatiboa adierazten duena arnastutako aire litro bakoitzeko 0,25 miligramo alkohol dagoen ala ez (odol litro bakoitzeko 0,5 gramo).
    - Produktuaren ezaugarriei buruzko deskribapena eta argibideak izatea, globoan inprimatuta, **euskaraz zein gaztelaniaz**.
    - Alkoholimetroaren globoan inprimatuta izatea erabilera-jarraibideak, euskaraz zein gaztelaniaz.
    - Gutxienez bi urteko iraungipena.

- Estalkiaren eta bilgarriaren ezaugarriak.
    - Alkoholimetroak estalki pertsonalizatua izango du, **Eusko Jaurlaritzak enpresa esleipendunari emango dion diseinuaren arabera**.
    - Produktuaren neurriak, hau da, estalkian tolestutako alkoholimetroarenak, gehienez ere 54 milimetrokoak izango dira, eta errore-marjina % 10etik beherakoa izango da.
    - Multzo osoa, alkoholimetrokoa eta haren **estalkia, bilgarri itxi eta garden baten** barruan paketatu beharko da, zelulosazkoa edo antzeko materialezkoa, alkoholimetroa kanpotik erabat isolatuko duena.

BIGARREN LOTEA.

ERREGELETA.

- Erregeletaren ezaugarriak:
    - Alkoholaren ondorioak ikusteko balio duen euskarria, generoaren eta pisuaren arabera edo baraurik dagoenean zein janaria jan ondoren.
    - Bi elementuk osatuko dute:
        - Triptiko tolesgarria, hiru zati berdinetan banatua, alboetako bi zatiak erdikoaren gainean tolestu ahal izateko moduan.
        - Bigarren elementu higikor bat, triptikoak osatzen duen errailetik irristatuz, bertan dauden balioak ibiltzeko aukera ematen duena, adierazitako aldagaiak identifikatzeko.
    - **Erregeletak elebakarrak izango dira**, 9.900 zenbatetsi euskaraz argitaratuko dira eta 6.500 zenbatetsi gaztelaniaz.
    - Errore-marjina % 10etik beherakoa duten erregeletaren neurriak honako hauek izango dira:
        - Zabaldua: 254 x 52 mm
        - Tolestua: 82 x 52 mm
    - 350 g/m2-ko paper satinatuan fabrikatua.
    - **Eusko Jaurlaritzak erregeletaren diseinua emango dio enpresa** esleipendunari, inprimatzeko.

HIRUGARREN LOTEA.

“ALKOHOLAZ JAKIN” KOADRIPTIKOAK

- Koadriptikoaren ezaugarriak:
    - Koadriptikoaren dimentsioak, %10etik beherako errore-marjinarekin, honako hauek izango dira:
        - Inprimaketa: 4/4 tinta kuatrikromia
        - Tamaina irekia: 594x240mm
        - Amaierako tamainako kolunduzko tolesketa 148x210mm

- Couche mate paperean fabrikatua, 130gr

- **Eusko Jaurlaritzak koadriptikoaren diseinua emango dio enpresa** esleipendunari, inprimatzeko.

3.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

- 18.000 alkoholimetro zenbatetsi kualitatibo hornitzea, lehen deskribatutako ezaugarrien eta Eusko Jaurlaritzak emandako diseinuaren arabera.
- Alkoholaren eraginei buruzko 16.400 erregeleta zenbatetsi hornitzea, lehen deskribatutako ezaugarrien eta Eusko Jaurlaritzak emandako diseinuaren arabera.
- 12.000 “Alkoholaz jakin” koadriptikoak zenbatetsi hornitzea, lehen deskribatutako ezaugarrien eta Eusko Jaurlaritzak emandako diseinuaren arabera.
- Esleipendunak **eskaera egin eta gehienez 30 egun naturaleko epean entregatu** beharko ditu eskaerak. Eskaera posta elektronikoz izapidetuko da.
- **Egindako material horiek honako helbide honetan entregatu**:
    - Donostia-San Sebastian, 1. Vitoria-Gasteiz, 01010. Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. (Adikzioen Zerbitzua).

4.- KONTRATUA ALDATZEKO AUKERA

Kontratua **aurreikusitako zenbatekoaren %20ra arte alda daiteke**. Kontratuaren xede diren materialen beharra gorabeheratsua da garatuko diren sentsibilizazio-kanpainen eta prebentzio-programen eta horietan parte hartzen duten gazteen kopuruaren araberakoa delako.

5.- KONTRATUAREN EPEAK

Kontratu honen **iraupena urtebetekoa** izango da, kontratua gauzatzeko epea kontratu sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X

Firmado digitalmente por GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X
Fecha: 2026.01.30 11:21:36 +01'00'

Guillermo Herrero Alaña

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria

Director de Salud Pública y Adicciones